



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko urtarrilaren 18a

5. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, oinarrizko irakaskuntzarako testu liburua finantzatzeari buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak ([2. or.](#)).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Cintruénigoko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2005eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina ([7. or.](#)).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, oinarrizko irakaskuntzarako testu liburua finantzatzeari buruzkoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 129. artikuluan ezarritakoa betez, oinarrizko irakaskuntzarako testu liburua finantzatzeari buruzko Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dai-tezen agindu dut. Proposamen hori 2007ko iraila-ren 14ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

1. ARTIKULUARI **AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

1. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK ETA
IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA
-NAFARROAKO EZKER BATUA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

1. artikuluko testuaren orde, ondokoa jartzea:

“Lehen artikulua. Testu liburua.

Testu liburua da, lege honen ondorioetarako, inprimaturiko material iraunkorra eta buruaskia, ikasleek erabiltzeko eginikoa eta Nafarroako Gobernuak hezkuntza-etapetan curriculumak garatzeko onetsi duen araudian ezarritako edukiak garatzen dituena.”

Zioak: Zehazkiago jasotzen du zein material den finantzaketa-programaren xedea.

2. ZUZENKETA

NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluari beste idatz-zati bat, bigarrena, gehitzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen dugun testua:

“1. artikulua. Xedea. Testu liburua eta material didaktikoa.

1...

2. Material didaktikoa da ikasleek, banaka eta ikasturteak irauten duen bitartean, erabiltzeko prestatuturiko curriculum materiala; material hori, kasuan kasuko orientabide metodologikoen eta ebaluazio irizpideen arabera, baliagarria da curriculum edukiak garatzen laguntzeko.”

Zioak: Gure ustez, doakotasuna dela-eta, ezin gara mugatu testu liburueta soilik; izan ere, material didaktikoak ere ezinbestekoak dira oinarriko irakaskuntzetako arlo desberdinetan.

2. ARTIKULUARI **AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

3. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK ETA
NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA

Bigarren artikulua aldatzeko zuzenketa. Testu haren orde honako hau proposatzen da:

“Diru publikoekin ordaindutako ikastetxeetako testu liburua, alegia, ikastetxe bakoitzak oinarrizko hezkuntzan irakasteko aukeratu dituen haiek, pixkanaka doan eskaintzen joanen zaizkie ikasleei finantzaketa formula desberdinen bitartez eta erregelamenduz zehaztuko den sistemaren arabera.”

4. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

2. artikuluko lehenengo idatz-zatian gehiketa egiteko zuzenketa.

Testua honela geldituko litzateke:

“1. Diru publikoekin ordaindutako testu liburuak eta material didaktikoak, alegia, ikastetxe bakoitzak onarritako hezkuntzan irakasteko legez aukeratu dituen haiek, doakoak izanen dira aipatu irakaskuntzan ari diren ikasle guztientzat.

Zioak: Lehen artikuluari aurkezturiko zuzenketarekin koherenteak izatearren.

5. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Artikulu berri bat, 2. bis artikulua, gehitzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen dugun testua:

“2. bis artikulua. Erabiltzeko aldia.

1. Foru lege honetako 1.1 artikulua testu liburuak direla-eta aipatzen duen erabilera-aldia lau urtekoa izanen da, salbu eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloko liburuen kasuan; izan ere, horietan urtebetekoa izanen da.

2. 1.2 artikuluan aipatzen diren material didaktikoen erabilera-aldia urtebetekoa izanen da.

3. Testu liburuak edo/eta material didaktikoak Hezkuntza Administrazioarenak izanen dira, eta behin ikasturtea bukatutik, ikastetxean geratuko dira, hurrengo urteetan erabili ahal izan daitezten”.

Zioak: Ikasleengan eta haien familiengan elkartasunaren eta baterako erantzukizunaren balioak sustatzea. Gainera, liburuen eta curriculum-materialeen zainketa, haien kontserbazioa eta berrerabilera, diru-aurrezki bat da familientzat eta lagungarri gertatzen da garapen iraunkorraren ideian sakontzeko, ingurumen naturalaren zainketarako funtsezkoak diren lehengaiak kontserbatzen baitira.

6. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Beste artikulu bat, 2. ter), gehitzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen dugun testua:

“2. ter artikulua. Testu liburuak eta material didaktikoak erosteko prozedura.

Testu liburuak eta material didaktikoak erosteko guneak liburu-dendak izanen dira, pertsona natural nahiz juridiko gisa definitutakoak, soilik edo erabat jarduten dutenak amaierako bezeroari liburuak saltzen, jendearentzako zabalik dauden saltokien bitartez edo urrutiko salmentarako edozein prozeduraren bitartez, ekainaren 22ko 10/2007 Legeko 1.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Zioak: Gure ustez oso garrantzitsua da artikulu hori sartzea, zeren eta itundutako ikastetxe ia guztietan, bai ikastetxearen zuzendaritzaren beraren bitartez, bai gurasoen elkarrean bitartez, merkataritza-transakzio hori egiten baita, testu liburuak eta material didaktikoak saltzeko lizentzia fiskalik eduki gabe; hartara, izan ere, lehia bidegabea egiten dute liburu-denden kaltetan. Horren ondorioz, Nafarroako liburu-denda garrantzitsu batzuek beren jardunari utzi behar izan diote, urteko salmentetan % 40ko beherakada izan baitute.

**3. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK****7. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK ETA
NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Hirugarren artikulua aldatzeko zuzenketa. Testu haren ordean honako hau proposatzen da:

“Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeak aurrekontu-ekitaldi bakoitzean bilduko ditu testu liburuak finantzatzeko behar diren kontusailak, Erregelamenduz zehaztuko diren formulen arabera”.

8. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

3. artikuluan letra bat gehitzeko zuzenketa.

Testua honela geldituko litzateke:

“3. artikulua. Finantzaketa.

Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeak aurrekontu-ekitaldi bakoitzean bilduko ditu foru lege honetako bigarren artikuluan jasotako testu liburuen eta material didaktikoen doakotasuna finantzatzeko behar diren kontusailak”.

Zioak: Aurkeztutako zuzenketekin bat etortzeko.

**XEDAPEN GEHIGARRIARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

9. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK ETA
NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa:

Legea erregelamenduz garatzeko epea sei hilabetera luzatzea proposatzen da.

10. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK ETA
IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA
-NAFARROAKO EZKER BATUA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Artikulu bat gehitzeko zuzenketa. Testuari honako artikulu hau gehitzea:

“Programaren ezaugarriak

1. Testu liburua finantzatzeko programa maileguaren sistemaz garatuko da.

2. Oinarrizko irakaskuntzetako ikasleek lau ikasturtez erabili ahal izateko modukoak izan beharko dute liburuek.”

Zioak: Programa garatzeko modalitatea adierazi nahi da.

11. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK ETA
IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA
-NAFARROAKO EZKER BATUA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Artikulu bat gehitzeko zuzenketa. Hurrengo artikulua gehitzea proposatzen dugu:

“Programaren ezarpena

1. Programa ondoz ondoko ikasturteetan ezarriko da, oinarrizko hezkuntza maila guztiak hartu arte.

2. Programa 2008-2009 ikasturtean hasiko da, eta 2011-2012 ikasturtean egonen da ezarritik.”

Zioak: Finantzaketa programa ezartzeko epeak finkatzen ditu.

**ZIOEN AZALPENARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

12. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK ETA
NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa. Testu haren ordean honako hau proposatzen da:

“Zioen azalpena:

LOE legeak aitzinsolasean adierazten duen bezala, erkidegoaren funtsezko zerbitzu publiko bat da hezkuntza, berarekin ekarri behar duena eskola-hezkuntza guztien eskura egotea, inolako bereizketarik egin gabe, aukera-berdintasuneko baldintzetan. Bestalde, 1978ko Espainiako Konstituzioaren 27.4 artikulua ezartzen du oinarrizko hezkuntza derrigorrezkoa eta doakoa dela.

Derrigorrezko Oinarrizko Hezkuntzak Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza hartzen ditu. Hain zuzen ere, lege-ekimen honen esparrua derrigorrezkotasuna eta doakotasuna dira, eta helburua da mailaz maila doakotasuna gauzatzea hezkuntzaren osagaietako batean, hain zuzen ere testu liburuetan.

Kontuan hartu beharra dago, gainera, testu liburuek derrigorrezko hezkuntzak kalitatez emateko erabiltzen den hezkuntza-materialaren zati bat baizik ez direla. Beste hezkuntza-material batzuk ere badaude ikastetxeetako eta ikasgeletako liburuetan; esate baterako, kontsulta-liburuak, entziklopediak, monografiak, esku-liburuak, ikusentzunezko materialak, prentsa eta abar, ikastetxeek beren ikasleei doan eskaintzen dizkietenak eta familientzat inolako kosturik ez dutenak.

Europako gure ingurune herrialde gehienek testu liburuen doakotasuna gauzatzeko sistemak dituzte, eta ugari dira, halaber, familiei liburuak ahal den kostu txikiarekin emateko arauak lantzen joan diren autonomia-erkidegoak. Gurasoen elkarrekin sistematikoki eskatu izan dute, azken urteetan, testu liburuen doakotasuna.

Hori dela eta, komenigarria eta beharrezkoa da Nafarroako Foru Komunitateak ere doakotasun progresiborako proposamenari heltzea, kontuan izanda derrigorrezko hezkuntzako mailetan testu liburuen doakotasuna modu gradualean ulertu behar den helburu bat dela, betiere aurrekontuan horretarako ezarritako diruaren arabera eta ekitatearen printzipioa bermatuz.

Lehentasunez jardun beharko da zailtasun ekonomiko handiagoak dituzten familietako ikasleen kasuan.

Derrigorrezko hezkuntzako arlo eta ziklo bakoitzeko liburuen kudeaketa, kostu, ebaluazio eta finantzaketarekin loturiko gaiak ebatzi beharko dira, betiere trataera bereizia emanez.

Irizpideak finkatu beharko dira testu liburuek, Lehen Hezkuntzako bigarren ziklotik aurrera, ez dezaten praktikak egiteko atalik izan. Testu liburuen doakotasuna lortzeko prozedurek ahalbidetu behar dute aukera ezberdinak egon daitezen egoeren aniztasunera egokitzeko eta haiek modu iraunkorrean ebaluatzeko.

Eskubide hori ezin da izan ukituriko aldean borondatearen kontrakoa. Haien guztien interesak asetzeko moduko aukerako bideak bilatu beharko dira: familia batzuek baliabide horiek erosi nahi izatea, irakasleen eta tutoreen inplikazioa, gurasoen elkarrean parte-hartzea eta abar. Hori guztia Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren esparruan; izan ere, ikastetxeen autonomia pedagogikoa eta antolatze eta kudeatzeko autonomia handitzea aurreikusten da. Testu liburua eta gainerako curriculum-materialak hautatzeari dagokionez, Hezkuntzari buruzko Lege Organikoko laugarren xedapen gehigarriak ikastetxeen eskumenak ezartzen ditu.

Hori guztia dela eta, lege hori garatuko duten arauetan inplikaturiko aldean interesak eta eskumen-esparruak aurreikusi beharko dira.

13. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen dugun testua:

“Zioen azalpena

Espainiako Konstituzioak 27.4 artikuluan ezarri du oinarrizko irakaskuntza derrigorrezkoa eta doakoa dela. Ondoren hezkuntzari buruz eman diren lege organikoek Konstituzioaren agindu hori jaso eta garatu dute.

Derrigorrezko irakaskuntzen arloko prestakuntzaren esparruan, administrazioaren jardunaren oinarriak izan behar du hezkuntzarako eskubidea bermatzea eta oinarrizko arau eta printzipioak betetzerakoan desberdintasunak konpentsatzea.

Horri dagokionez, zalantzarik gabe derrigorrezko irakaskuntzetako ikasleek hezkuntzarako mate-

rialak ekitatez eskuratu ahal izatea eta haiei elkartasunezko erabilera ematea, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak bermatu eta arautu beharreko gaia da, dagokion jarduera-esparrua baita, dauzkan eskumenen indarrez.

Foru lege honek testu liburuen eta material didaktikoaren elkartasunezko erabilerearen oinarriko alderdiak arautzen ditu, hura zabaltzeko Nafarroako Foru Komunitatearen funts publikoekin ordaintzen diren ikastetxe publikoetan derrigorrezko irakaskuntzako mailetan ikasten duten ikasle guztiengana, edozein dela ere haien jatorria edo klase soziala. Eta hori egin nahi du derrigorrezko irakaskuntzako ikasleen testu liburuen eta material didaktikoen finantzaketa uztartuz balioetan oinarrituriko hezkuntzarekin, eta horretarako materialen berrerabilteza bultzatuko da, liburuak maileguan emanez eta haiek ondasun kultural gisa zainduz.

Lege hau abian jartzearekin, gizarte kohesioa bultzatzen da, kalitatezko hezkuntza sistema baten esparruan aukeren berdintasuna bermatzen duten politiken bitartez. Ikasleengan eta haien familien gain elkartasunaren eta baterako erantzukizunaren balioak sustatzen dira. Gainera, liburuen eta curriculum-materialen zainketa, eta haien kontserbazioa eta berrerabilera, diru-aurrezki bat da familientzat, eta lagungarri gertatzen da garapen iraunkorraren ideian sakontzeko, ingurumen naturalaren zainketarako funtsezkoak diren lehengaiak kontserbatzen baitira.

Hori dela eta, eta ikastetxeen autonomia kontuan hartuz, oinarrizko irakaskuntzarako testu liburuen finantzaketari buruzko foru lege bat onestea proposatzen dugu.

Zioak: Aurkeztutako zuzenketekin bat etortzeko.

14. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK ETA IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA -NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Zioen azalpena ondoko testuarekin ordeztzea proposatzen dugu:

Espainiako Konstituzioak 27.4 artikuluan ezarri du oinarrizko irakaskuntza derrigorrezkoa eta doakoa dela.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 4.1 artikuluan jasotzen da oinarrizko irakaskuntza derrigorrezkoa eta doakoa

dela pertsona guztiarentzat, eta 3.3 artikuluan ezarzen du oinarriko hezkuntza lehen hezkuntzak eta bigarren hezkuntzak osatzen dutela.

Aipatu legeko laugarren xedapen gehigarriak, testu liburuei buruz ari dela, ezartzen du ikastetxeen koordinazio didaktikoko organoei dagokiela, autonomia pedagogikoaz dihardutela, irakaskuntzetan erabili beharreko testu liburuak eta materialak aukeratzea; betiere ikasleen adinei eta hezkuntza-administrazio bakoitzak onetsitako curriculumari egokitutako zorrotasun zientifikoa izanen dute. Halaber, ondokoekiko errespetua islatu eta sustatu beharko dute: Konstituzioan jasotako printzipio, balio, askatasun, eskubide eta betebeharrak; legean bertan jasotako printzipio eta balioak; Generoko indarkeriaren kontrako babes integraleko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan jasotako printzipioak eta balioak, eta Gizonen eta emakumeen arteko egiazko berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan jasotakoak.

3/2006 Lege Organikoko 88.2 artikulua ezarzen du hezkuntza-administrazioek behar diren baliabideak emanen dizkietela ikastetxeei oinarriko irakaskuntzaren doakotasuna bideratzeko.

Funts publikoekin ordaindutako ikastetxeetan testu liburuak finantzatzeko programa da Nafarroako Gobernuak aurrera eramanen duen jarduera, hezkuntza zerbitzu publikoaren doakotasuna errealtate bihurtzeko.

Testu liburuak finantzatzeko programak, halaber, errespetuzko eta baterako erantzukizuneko

jarrerak sustatu nahi ditu ikasleengan, funts publikoekin finantzaturiko ondasunen erabilera dela eta; eta lagungarria izan nahi du familien eta ikastetxeen artean lankidetzari handiagoa izateko, eta ikastetxeen autonomian aurrera egiteko”

Zioak: Legearen edukia indarreko arauen esparruan kokatzen du, eta agertzeraren ematen ditu legeak sustatu behar dituen helburuak, testu liburuak finantzatzeko programaz gainera.

15. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK ETA
IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA
-NAFARROAKO EZKER BATUA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Gehitzeko zuzenketa. Zioen azalpenean honako lerrokada hau gehitzea proposatzen da:

“Foru lege honen helburua da, kasuko ikasturterako, testu liburuen doakotasun programa arautzea; doakotasun programa hori funts publikoekin ordaintzen diren eta Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza irakasten dituzten Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe guztietan aplikatuko da”

Zioak: Hori sartu ondoren, lege proposameneko testua zehatzagoa da, legearen helburua berariaz aipatzen baita.

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Cintruénigoko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2005eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 1ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Cintruénigoko Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2005eko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2007ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Cintruénigoko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2005eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (7. or.).
- II. Helburua (8. or.).
- III. Norainokoa (8. or.).
- IV. Iritzia (9. or.).
 - IV.1. 2005eko aurrekontuaren likidazioari dagokionez (9. or.).
 - IV.2. 2005eko abenduaren 31ko ondare-egoeraren agerpena (9. or.).
 - IV.3. Legezketasuna (9. or.).
 - IV.4. 2005eko abenduaren 31ko egoera ekonomiko eta finantzarioa (9. or.).

IV.5. Informazio osagarria eta azalpen oharak (10. or.).

IV.6. 2004ko txostenaren gomendioen jarraipena (10. or.).

IV.7. Laburpena eta ondorio nagusia (10. or.).

V. Iruzkina, ondorioak eta gomendioak (10. or.).

V.1. Administrazio-kontratazioa. (10. or.).

V.2. Kudeaketari buruzko bestelako gomendioak (11. or.).

V.3. Hirigintza (12. or.).

1. eranskina. 2005eko abenduaren 31ko finantzen egoera-orri bateratuen oroit-idazkia (xx. or.).

2. eranskina. Sociedad Cintruénigo de Servicios Municipales, S.L.ren egoera-orriak (xx. or.).

Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokortako bulegoetan eta ondoko webgunean:
www.cfnavarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

Cintruénigoko Udalak 6.832 biztanle ditu, 2006ko urtarrilaren 1eko udal erroldaren arabera, eta haren erakunde autonomoekin batera, hauek ditu zifra adierazgarrienak 2005eko abenduaren 31n:

Entitatea	Betebehar aitortuak	Eskubide aitortuak	Langileak 2005-12-31n
Udala	7.283.912,64	7.385.602,19	74
Uren Udal Batzarra	724.897,97	832.589,39	-
San Francisco de Asís Udal Patronatua	1.409.488,87	1.491.744,22	51
Guztira	9.418.299,48	9.709.935,80	125

Halaber, udalak honako enpresa hau dauka, bere jardunerako:

	Jarduera nagusia	Zuzeneko parte-hartzearen %
Cintruénigo de Servicios Municipales, S.L.	Kirol instalazioak eta ikastetxeak garbitzea	100

Sozietateari buruzko auditoriarik ez da egin, eta dauzkan dirusarrera bakarrak udalak egindako ekarpenetatik heldutakoak dira. Udalak, bestalde, ez ditu sartzen sozietate horren kontuak bere kontabilitatearen egoera-orri bateratuetan. Txosten honen II. eranskinean jaso dira sozietate horren ikuskatu gabeko finantzen egoera-orriak.

Udalak ondoko mankomunitateetan hartzen du parte:

- Fitero, Cascante eta Cintruénigoko Ur Mankomunitatea.
- Cintruénigo eta Fiteroko oinarrizko gizarte zerbitzuen mankomunitatea.
- Ebroko kirol mankomunitatea.
- Erriberako hondakin solidoen mankomunitatea.

Mankomunitate horien bitartez emandako zerbitzuak dira ur-hornidura, oinarrizko gizarte zerbitzuak, kirol jarduera batzuen koordinazioa eta antolaketa, zaborren bilketa eta tratamendua, eta etxebizitzak zaharberritzeko bulegoa.

II. HELBURUA

Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, fiskalizatu egin ditugu bai Cintruénigoko Udaleko kudeaketa ekonomiko eta finantzarioa, bai eta udal horren 2005eko ekitaldiko gastuen eta dirusarreraren aurrekontuen betetzea, zeinak erakunde autonomoenak ere biltzen baititu.

Toki entitateari aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute: aipatutako legeek, Toki araubidearen oinarriak arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutuak, administrazio-kontratazioari eta hirigintza-kudeaketari buruzko araudiak eta Nafarroako toki entitateei oro har aplikatzekoa den gainontzeko araudiak.

Kontabilitate eta aurrekontu gaietako araubide juridikoa Nafarroako toki administrazioarentzako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu egiturari eta kontabilitateari buruzko 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272. foru dekretuetan ezartzen da.

Txostenaren helburua da honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea:

- a) Cintruénigoko Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2005eko ekitaldiko aurrekontuaren garapena eta betetzea.
- b) 2005eko abenduaren 31ko ondare-egoe-raren agerpena, aplikatzekoak zaizkion kontabilitate-printzipioei jarraikiz.
- c) Udalaren eta haren erakundearen jarduera ekonomiko eta finantzarioa legezketasun printzipioaren arabera bete den ala ez aztertzea.
- d) Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2005eko abenduaren 31ko finantza-egoera.
- e) Cintruénigoko Udalaren eta haren erakunde autonomoen finantzen egoera-orrien informazio osagarrian eta azalpen oharretan ageri diren datuen eta iruzkinen arrazoizkotasuna eta koherentzia.
- f) Egin zuen azken fiskalizazio-txostenean, zeina 2004ko ekitaldiari buruzkoa baita, Comptos Ganbera honek eman zituen gomendioak noraino bete diren.

III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak, bere jarduketa programarekin bat, Cintruénigoko Udalaren (aurrerantzean, "udala") eta haren erakunde autonomoen –Uren Udal Batzarra eta San Francisco de Asís zahar-etxea– finantzen egoera-orrien fiskalizazioa egin du; egoera-orri horietan sarturik daude aurrekontu bateratuaren likidazioaren egoera-orria, aurrekontuen emaitza bateratua, 2005eko ekitaldiko diruzaintzako gerakin bateratua eta 2005eko abenduaren 31ko egoeraren balantze bateratua, bai eta 2005eko ekitaldiko finantzen egoera-orri bateratu horien informazio osagarria eta azalpen oharra ere.

Udalaren titulartasuneko Cintruénigo de Servicios Municipales, SL sozietatearen finantzen egoera-orriei buruzko auditoriarik ez dugu egin. Udalaren ekarpenez beste dirusarrerarik ez du. Informazio gisa finantzen egoera-orriak erantsi ditugu dagokion II. eranskinean.

Udalak Kontabilitate publikoari buruzko plan orokorra ezarrita dauka, eta bateraturiko kontabilitate-orriak dauzka, udalari eta haren erakunde autonomoei dagozkienak.

Eginiko azterketak ardatz nagusi izan ditu aurrekontuaren betetzearen kapitulu ekonomikoen berrikuspena (aurrekontuko aldaketak eta aurreikuspenen betetze-maila aztertu dira) eta ondare-masa ezberdinen berrikuspena (antolaketa, kontabilitate eta barne-kontrolako gaiak aztertu dira).

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako fiskalizazio printzipioei eta arauei jarraituz eta aurreko urteetako lanetan agerian utzi diren baldintzen eta arazoan arabera beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatuz.

Txostenean jasota daude udalaren eta haren erakunde autonomoen antolamendua, barne-kontrola, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko beharrezkotzat jotzen ditugun iruzkin eta gomendioak.

Udaleko eta haren menpeko erakunde autonomoetako langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

IV. IRITZIA

Eginiko fiskalizazioaren barruan, Cintruénigoko Udalaren eta haren erakunde autonomoen finantzen egoera-orriak, 2005eko abenduaren 31n amaituriko urteko ekitaldikoak, aztertu ditugu. Egoera orri horiek udalaren ardurapean egin dira.

Eginiko azterketan oinarrituz, hona gure iritzia:

IV.1. 2005eko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOARI DAGOKIONEZ

Erantsi dugun 2005eko aurrekontu bateratuaren likidazioaren egoera-orriak behar bezala agertzen du, garrantzizkoak diren alderdi guztiei dago kienez, eginiko jarduera eta 2005eko abenduaren 31ko aurrekontu-egoera.

IV.2. 2005eko ABENDUAREN 31ko ONDARE-EGOERAREN AGERPENEA

Erantsi dugun 2005eko abenduaren 31ko egoerari buruzko balantze bateratuak eta oharrek behar bezala agertzen dute udalaren eta haren erakunde autonomoen finantza- eta ondare-egoera, honako salbuespen honekin:

- Azkeneko ondasunen inbentario eguneratua 1995ekoa da. Hala ere, udalak inbentario bat egiteko eskatu dio enpresa pribatu bati, eta 2006ko ekainean egin dute.

IV.3. LEGEZKOTASUNA

Oro har, udalaren jarduera legezketasun printzipioari jarraikiz egin da. Dena den, zenbait ez-betetze formal antzeman ditugu, eta horiei buruzko iruzkinak egin ditugu txosten honetan zehar.

IV.4. 2005eko ABENDUAREN 31ko EGOERA EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA

Hasierako aurrekontua 8.413.095,04 eurokoa da, eta behin betikoa, 9.505.337,26 eurokoa. Gastuen betetze-maila ehuneko 99koa da, eta dirusarrerena, ehuneko 102koa (aurreko ekitaldian, ehuneko 86,35ekoa eta ehuneko 85,10ekoa izan zen, hurrenez hurren).

Ekitaldiaren amaieran aurrekontuko emaitza doituia 340.860,36 euroko superabita izan da, finantzaketaren desbideraketa positiboak eta negatiboak daudelako eta diruzaintzako gerakinarekin finantzatu direlako gastu batzuk.

2005eko abenduaren 31n, finantza-zorra 6.683.827,14 eurokoa da. Funts hauen xedea da, batez ere, inbertsioek eragindako diruzaintzako gerakin negatiboa finantzatzea, industrialdea urbanizatzea eta ur-hornidurako sareak.

Diruzaintzako gerakina 227.619,11 eurokoa da; horietarik 218.767,06 euro atxikitako baliabideenak dira, eta 55.663,41 euro, berriz, finantzaketa atxikia duten gastuenak; beraz, gastu orokorretarako 46.811,36 euroko defizita du diruzaintzako gerakinak. Aurrezki garbia ehuneko 2,47koa da.

Hori dela eta, nabarmendu beharra dago ezen, 2003ko ekitaldian zorra birfinantzatu eta horrela bere epemuga luzatu ondoren, ikaragarri jaitsi direla kontu korranteetako zorpekoak, eta horrenbestez, gutxitu egin direla horri lotutako finantza-gastuak.

IV.5. INFORMAZIO OSAGARRIA ETA AZALPEN OHARRAK

Finantzen egoera-orriei buruz udalaren oroitazkian sartutako informazio gehigarriak eta azalpen oharrek informazioa ematen dute egoera-orri horiek interpretatu eta ulertzeko.

IV.6. 2004ko TXOSTENAREN GOMENDIOEN JARRAIPENA

2006an, udalak lanpostuei eta eginiko atazei buruzko azterlan bat egin du, baita ibilgetuaren inbentario bat ere.

IV.7. LABURPENA ETA ONDORIO NAGUSIA

Laburbilduz, eta **ondorio orokor gisa**, adierazi behar dugu Cintruénigoko Udalak, ikuspuntu administratibotik, behar bezala kudeatzen dituela bere aurrekontuak. Hala ere, kudeaketa hobetzeko, honela jokatu behar du:

- *Aurrekontua legeak aurreikusitako epean onetsi behar du, kudeaketarako tresna gisa erabili ahal izateko.*

- *Kontrol tresnak eta aurrekontuen kudeaketaz arduratzen diren arloen arteko koordinazioa sendotu behar du.*

- *Udalaren etorkizuneko finantza-egoera aztertu behar du, eta honakoak bezalako puntuak ebaluatu behar ditu: eman beharreko zerbitzuak eta bere kostua, proiektu berriak eta zorpetze-ahalmena.*

- *Aurrekontuko aldaketen gaineko araudia bete behar du, epeei eta eskatutako dokumentazioari dagokienez, eta ez du gasturik hitzartu behar bal-*

din eta horiek ez baditu kontu-hartzaileak aztertu aldeztu aurretik.

- *Administrazio-kontratazioari buruzko araudia zorrozki bete behar du; batez ere, kontratazio-espeditenteak formalizatzeari eta obren jarraipena egiteari buruzko alderdi batzuei dagokienez.*

- *Erakunde autonomoi dagokienez, beharrezkoa da haien estatutuak osatu eta gaurkotzea, horrela haien benetako autonomia-maila agertzera emateko eta udalak haien jardueraren gainean erabiltzen dituen kontrol eta zaintza mekanismoak erakusteko.*

Alabaina, ez da ahaztu behar erakunde horien eragiketak, entitate publikoak direnez gero, kontu-hartzailetzari lotuak daudela; horregatik, eginkizun hori benetan burutu ahal izateko egoki diren prozedurak taxutu behar ditu udalaren kontu-hartzailetzak.

- *Erakunde autonomoi eskatu behar die aurrekontua eta finantzen egoera-orriak epe barruan likidatu eta onestea.*

V. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

V.1. ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA.

Atal hau bi zatitan banatuta dago: batetik, hornidura-erosketari eta zerbitzu-emateari buruzko alderdiak, eta, bestetik, inbertsioak.

V.1.1. Hornidurak erosi eta zerbitzuak ematea

Udalak ekitaldian zehar egin dituen bi kontratazio espeditente muntakoenak –hornidurak erosteari eta zerbitzuak emateari buruzkoak– aztertu ditugu.

Hona hemen horien laburpena:

			(eurotan)
Espeditentea	Esleitzeko prozedura	Esleipena	Gastua, 2005
Garbitzeko makina	Lehiaketa irekia	98.861	24.327
1. zabalguneari buruzko azterlan eta diagnosia	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	29.900	–

Comptos Ganberaren gomendioak betez, erositzen kudeaketarako prozedura normalizatua aplikatzen da. Aipatutako espeditenteen azterketatik eta arloan eginiko laginketatik ateratzen dugun ondorioa da bertan ez direla jaso ekintza guztiak eta ez direla egiaztatzen araudiak eskatzen dituen alderdi guztiak, eta horrexegatik hauxe da gure gomendioa:

- *Ilatziz garatzea udalean eta haren erakunde autonomoetan aplikaturiko erosketa-prozedura, eta*

aholkularitza juridikoak nahiz udaleko kontu-hartzailetzak araudiari jarraituz bete beharreko eginkizuna berariaz zehaztea.

- *Araudiak eskatzen duen informazio guztia espeditenteetan jasotzea, eta kontratua kasu guztietan formalizatzea, bai eta jadanik mugaeguneratutakoak luzatzea edo berriro adjudikatzea ere, halakoetan.*

- *Ondasun eta zerbitzu arrunten erosketek dagokienez, informazio sistema bat ezartzea, ahalbidetuko duena behar adinako aurrekontu-krediturik badagoela ziurtatzea, betebeharrak aitortu aurretik.*

V.1.2 Inbertsioak

Ondoko kontratazio espedienteak aztertu ditugu, kontuan hartu gabe zenbat urteko aurrekontuegozpena duten:

(eurotan)			
Espedientea	Esleitzeko prozedura	2005ekoa, doitu	Gastuak, 2005
Gayarre eta beste kale batzuetako argiteria berritzea	Lehiaketa irekia	72.943	88.391,77
Estancako basoberritzea: II. fasea	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	203.487	–

Aztertutako espedienteetan falta da bertan kreditatu beharreko egintzetakoren bat, hala nola txosten juridikoak eta kontu-hartzaitzak, baldintza-orriaren onespina edo kontratazio mahaia izendatzea.

Ondotik, laburpen gisa, **ondorio** eta *gomendio* aipagarrienak azalduko ditugu:

- *Egiaztatu dugu munta txikiko inbertsio batzuen kasuan ez dela espedienterik ireki, eta horretarako arrazoi nagusia da udaleko osoko bilkurako kide batzuek zuzenean jarduten dutela, ezarritako prozedurak aintzat hartu gabe.*

Informazio-truke eta lankidetzak handiagoa egon beharko litzateke kudeaketako organo erabakitzaileen eta udaleko teknikarien artean.

- *Gure gomendioa da espedientea egitea inbertsio guztietan, araudiari zorrotz lotuz, bereziki esleipenari eta kontratu mota eta zenbatekoaren arabera beharrezkoak diren egintza guztiak bete zezaten dagokionez.*

- *Udaleko langileek egitea azken berrikuspena, ziurtatu eta egiaztatzeko espedientean jasorik dagoela legeria indardunak eskatzen duen dokumentazio guztia.*

V.2. KUDEAKETARI BURUZKO BESTELAKO GOMENDIOAK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, gure aburuz udalak bere egin behar dituen gomendio nagusiak, dituen antolaketa-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko.

V.2.1. Antolaketa orokorra

- *Barne araubideari buruzko erregelamendua egitea, horren bidez udaleko organo exekutibo eskumenak definitu eta haien artean banatzeko eta erakunde autonomoekiko harremanak arautzeko.*

- *Oinarrizko kudeaketa-prozedurak idatziz jarritzea, eta exekuzio-faseetarako arduradunak identifikatu eta esleitzea, kontu-hartzaitzaren eta aholkularitza juridikoaren aldetik beharrezkoa den partaidetza aurreikusiz, halakoak aginduzkoak direnean.*

- *Udalak bere erakunde autonomoen ekintzen gain egin beharreko kontrol eta zaintza behar bezala bermatzeko prozedurak taxutzea.*

V.2.2 Inbentarioa-lbilgetua

- *Udal ondasunen eskriturak egiten eta ondasunok erregistratzen amaitzea, hala jabari publikoak nola ondare-ondasunak eta komunak.*

- *Udal inbentarioa etengabe gaurkotzeko eta hura ibilgetuarekin konektatzeko bidea emanen duten prozedurak diseinatu eta aplikatzea, kontu hauei aplikatzekoak zaizkien kontabilitateko irizpideen arabera.*

- *Ibilgetua osatzen duten elementuak amortizatzeko irizpideak ezartzea, eta orain arte bildutako informazio guztia erregistratzea.*

V.2.3. Langileak

- *Erakunde autonomoetako plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda onetsi eta argitaratzea.*

- *Idatziz eta urtero eskatzea udaleko eta haren erakunde autonomoetako langile guztiei familia egoeraren ziurtagiria, haien nominetan PFEZaren atxikipena egoki egin ahal izateko.*

V.2.4. Tributu bidezko dirusarrerak, tasak eta prezio publikoak

- *Tasa eta prezio publikoek jasaten dituzten kostuei buruzko azterlanak aldizka gaurkotzea.*

- *Kasuan kasuko errekarquak aplikatzea beti.*

V.2.5. Diruzaintza

- *Gordailuzaintzaren ondorioz eskudirutan egin diren kobrantzak murriztea ahalbidetuko duten prozedurak taxutu eta aplikatu behar dira.*

- *Eskudiruaren kutxaren kontrol egokia eta erabilera murriztua ziurtatzeko arau batzuk prestatu behar dira.*

- *Bankuen arloko berdinkatzeak aldiro egin beharrekoak dira.*

V.2.6 Alderdi orokorrak

- *Gastuak eta dirusarrerak kontabilizatu behar dira sortzapenaren printzipioa behar bezala aplikatuz.*

- *Udalaren aurrekontuak egin eta onestea legedian ezarritako epeetan.*

- *Behar bezala justifikatu behar dira askotariko zerbitzuen ondorioz sortzen diren zenbateko txiki-gastuak, eta kasuko atxikipena egin behar da.*

- *Behar adinako aurrekontu-kreditua dagoela egiaztatu behar da gastu-betebehar bat aitortu aurretik, edo indarreko legeriaren arabera aurrekontu-aldaketak egin behar dira.*

- *Kobratzeke dauden eskubideen aldizkako jarraipen sakona egitea.*

- *Udalaren eta haren erakunde autonomoen kontabilitatea gaurkoturik edukitzea, kudeaketa tresna baliagarria izan dadin.*

V.3. HIRIGINTZA

Udalak aurkezturiko oroitidazkian onetsitako plan orokorraren xehetasunak azaltzen dira, baita izan dituen aldaketak, plan partzialak eta betetze maila ere:

Francisco Javier Sesma Masa auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2007ko irailaren 26an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde